



GIPUZKOAKO URPEKO IHARDUERETAKO FEDERAZIOA

Federación Guipuzcona de Actividades Subacuáticas

Anoeta Pasealekua 5

20014 DONOSTIA

<http://www.ehuif-fvas.org/>

guif@kirolak.net

Telefono zk: 943 467 017

Faxa: 943 474 574

ITSASPEKO ARRANTZAREN ARAUDIA

SARRERA

Gizakien eta itsasoaren arteko harremana gizadia sortu zen garaikoa dugu. Itsaspeko arrantzan itsasoan barneratzeko eta hura aztertzeko antzinako senak uztartzen dira, apneako urpekaritzaren bidez, itsasoko baliabideak eta arrainak eskuratzeko. Inguru zailean norbere burua fisikoki eta mentalki gainditzeak, norbera ezagutzeak eta animalien inteligentziarekin lehiakortasun nobleak itsaspeko arrantzako kirolaria estimulatzen eta aberasten du.

Gaur egun ezagutzen dugun itsaspeko arrantzak mende erdia bete du. Itsaspeko arrantzako lehiaketak sendotzeari esker, gure kirolariak nazioarteko eliteko goi-postuetan daude.

Historian zehar itsaspeko arrantza garapen teknologikoaren, arrainen ohituren aldaketan eta ardura soziokulturalen arabera eboluzionatzen joan da. XXI. mendeko gizartea komunikabideen gizartea da, eta inoiz baino sentsibilizatuagoa dago ingurumenari dagozkion gaien aurrean. Hiritarrak inoiz baino informatuagoak daude eta inoiz baino sentiberagoak dira, eta natura eta itsasoa guztion ondare eta gizadiaren oinorde gisa ulertzen dute. Horrexegatik Itsaspeko Jarduerak gizarteko balioetan eta eboluzioan integratu beharra dute. Ondorioz, Itsaspeko Arrantzak arrantza sostengarria eta arduratsua izan behar du.

BANAKAKO ETA KLUBEN ARTEKO ITSASPEKO ARRANTZAKO ARAUDIA, GIPIZKOAKO TXAPELKETETAN

1. artikulua. - ZER DA ITSASPEKO ARRANTZA?

Itsaspeko arrantza bizirik eta aske dauden arrainak harrapatzea da, federazio-arauen atalean (3. artikulua) aipatzen den ekipoa erabiliz; itsaspeko arrantzarako urperatze-autonomia apnea bidezko urpekariaren gaitasun fisikoaren arabera da.

2. artikulua. - GUIF-AREN PROBETAN PARTE HARTZEKO ARAUAK

2.1 Gipuzkoako Urpeko Ihardueretako Federazioaren (GUIF) hasitako urteko federazio-lizentzia eta arrantzarako eguneratutako baimena eduki behar dira.

2.2 Probaren egunean 18 urte eduki behar dira, **23 azpiko kategorian salbu; bertan, betetako 16 urtetik 23 urte beteko dituzten urtea arte izango da baimenduriko adina.**

2.3 Parte hartzen duten proben araudia ezagutu eta bete behar da.

3. artikulua. - FEDERAZIO-ARAUAK

3.1 Baimendutako materiala: tirante elastikoko (gomak) edo aire konprimituko fusilak, babes-jantzi isotermikoa, hegatsak, lasta-gerrikoa, itsaspeko maskara, eskularruak, arnas-tutua, arpoiak, hiruhortzekoak, kakoa, labana, itsaspeko esku-argia eta seinaleztapen-buia; bertan eraman daiteke ordezeko materiala eta arrainak eramatekoa.

3.2 Txapelketetan, honakoa debekatuta dago: arrainak eramatekoa gerrian jarrita erabiltzea, fusila kargatzea edo uretatik kanpo kargatuta mantentzea, ontzian edo buiatik zintzilik. *Torpedoa* erabiltzea. Ontziak arrastaka eramanda uretan mugitzea. Arnasketa autonomo edo erdi-autonomorako edozein tresna erabiltzea.

3.3 Zunda eta GPSa erabil daitezke.

3.4 Buia: derrigorrezkoa da buia erabiltzea eta lehiakideek ezin dute buiarik elkarbanatu. Buia kolore bizikoa izango da (gorria edo laranja, egungo araudiaren arabera), erraz lokalizatu ahal izateko. Kirolaria uretan dagoen eta txapelketak irauten duen une oro erabili behar da, inongo salbuespenik gabe. Txalupazainak ezingo du buia ukitu lehiakidea ontzian ez badago.

3.5 Kontrol-lanabesak: antolatzaileek kirolari bakoitzari lehiakide edo talde bakoitzaren harrapakinak sartzeko beharrezko zaku edo ontziak emango dizkio, bakoitza bere zenbakiarekin.

4. artikulua. - ANTOLAKUNTZA ETA KONTROLA.

4.1 **Antolakuntzaren hierarkia-menpekotasuna:** txapelketa honen antolakuntza Gipuzkoako Urazpiko Ihardueretako Federazioaren mende egongo da.

4.2 **Antolakuntza gainbegiratzea:** Gipuzkoako Itsaspeko Arrantzako Batzordeak gainbegiratuko du antolakuntza bere eremu eta eskumenaren barnean dauden probetan

4.3 **Antolakuntzaren egitura:** Txapelketa Batzorde batek osatuko du antolakuntza.

4.3.1.1 Txapelketa Batzordearen osatzea:

Probako Zuzendaria: txapelketaren garapenaren arduradun nagusia da. Batzordearen lehendakaria izango da eta, txapelketa-batzordeak entzunda, bera da proba laburtu edo bertan behera utz dezakeen bakarra, itsas aginte eskudunak proba bertan behera uztea edo aldi baterako laburtzea erabakitzean salbu.

Komisario Orokorra: epaile nagusia izango da eta proban araudia betetzeaz arduratuko da. Federazioko presidentearekin batera akta sinatu beharko du eta Gipuzkoako Federazioko epaile-titulazioa eta -lizentzia eduki beharko ditu.

Gipuzkoako Federazioko arrantza-batzordekidea: federazioko presidentea egon ezean, Federazioaren ordezkaria izango da proban eta Txapelketa Batzordean sortutako eztabaidak gidatuko ditu.

Parte hartzen duen klub bakoitzeko ordezkari bat: Txapelketa Batzordeak erabaki beharreko deliberoetan parte hartuko du.

Proba antolatzen duen klubeko ordezkari bat: Txapelketa Batzordeak erabaki beharreko deliberoetan parte hartuko du.

Martxan dauden probak laburtzearen edo bertan behera uztearen inguruko gaietan, Txapelketa Batzordeak bere iritzia esateko aukera izango du, itsas aginte eskudunak proba bertan behera uztea edo aldi baterako laburtzea erabakitzean salbu.

Kontrol teknikoa Txapelketako Epaimahaiaren esku egongo da

Honakoak izango dira **Txapelketako Epaimahaiaren** buruak: Komisario Orokorra, komisario laguntzaileak, pisatze-komisarioak eta pisatze-komisario laguntzaileak.

4.4 **Epaimahaikide bakoitzaren eskuduntzak:**

4.4.1 Txapelketako Epaimahaiaren buru izateaz gain, **Komisario orokorra** GUIFko epaileen aginte gorena izango da eta Federazioko presidentearekin batera akta sinatuko du.

4.4.2 **Komisario Orokorraren lehen laguntzailea:** Txapelketako Epaimahaikide izango da eta txapelketako aktak egiten lagunduko du.

4.4.3 **Komisario Orokorraren bigarren laguntzailea:** Txapelketako Epaimahaikide izango da eta txapelketako aktak egiten lagunduko du.

4.4.4 **Pisatze-komisarioa:** probako pisatzearen arduraduna izango da eta pisatze-jarduera zuzendu eta antolatuko du. Pisatze-laguntzaileek emandako datu guztiak idatziko ditu, aktak egiten lagunduko du eta Itsaspeko Arrantzako Komisario Autonomikoaren akreditazioa eta lizentzia eduki beharko ditu.

4.4.5 **Pisatze-komisario laguntzaileak:** parte hartu duten arrantzaleen edo proban izena emandako klub bakoitzeko gutxienez ordezkari baten aurrean pisatze-jarduera egingo dute. **Pisatzeko ordena probaren aurretik egindako**

zozketa baten arabera izango da, Gipuzkoako Txapelketen bigarren jardunaldian salbu, non lehen jardunaldiaren sailkapenaren alderantzizko ordenan pisatuko den. Pisatze-komisario laguntzaileek Arrantzako Komisario Autonomikoaren akreditazioa eta lizentzia eduki beharko dituzte.

4.5 Eskumenak:

4.5.1 Txapelketako Epaimahaiaren eskumenak norgehiagokan: proba epaituko du eta pisatu ondorengo lehen ordu erdian aurkeztutako errekurtsioak bertan ebatziko ditu; errekurtsio horiek Komisario Orokorrak probako kirolgarapenaren inguruan hartutako erabakien kontra aurkeztu ohi dira.

4.5.2 Ontzien ikuskapenaren eskumenak: Komisario Orokorrak eta bi laguntzaileek parte-hartzaileen edozein ontzi ikuskatzeko ahalmena dute. Kirolariek daramaten aleen kopurua jakin beharko dute. Informazio hori isilpekoa izango da eta proba amaitu arte ezingo da publiko egin.

4.6 Segurtasuna: beharrezko zerbitzu medikuak arduratuko dira segurtasunaz.

4.6.1 Ahal den heinean, eskafandrari-sorosleen beharrezko kopurua egongo da, istripurik balego itsaspeko arrantzarietara une oro asistentzia eskaintzeko.

5. artikulua. - IZEN-EMATEAK

5.1 *Gipuzkoako Federazioak Euskadiko txapelketako parte-hartzaileen zerrenda egingo du. Klub bakoitzak proba-eguna baino 10 egun natural lehenago aurkeztu behar du izena emandako parte-hartzaileen zerrenda.* Ez badu baldintza hori betetzen, arazo larriak sor diezazkioke antolakuntzari eta, ondorioz, txapelketatik kanpo gera liteke. Izen-emateak posta ziurtatu, fax edo e-mail bidez bidaliko dira **GUIFera. – GUIF Gipuzkoako Urpeko Ihardueretako Federazioa, Anoeta Pasealekua 5, 20014 Donostia (Gipuzkoa), fax zkoa 943 474 574 edo e-maila quif@kirolak.net,** eta zigilu-markaren data hartuko da aintzat.

5.2 Klub bakoitzak nahi haina kirolariren izen eman ditzake.

Gipuzkoako txapelketako jardunaldietako batean puntuaziorik lortu ez bada, sailkapen-txapelketetan izena ematean parte-hartzaileei ezarritako zenbaki ordinala erabiliko da sailkapen-postua ezartzeko.

6. artikulua. - AURKEZPENA

6.1 Parte-hartzaileak antolatzaileek txapelketa egiteko hautatutako tokira joan behar dira.

7. artikulua. - TXAPELKETA

7.1 Gipuzkoako txapelketaren iraupena gehienez 10 ordukoa eta gutxienez 8 ordukoa izango da, eta bi jardunaldietan banatuko da. Jardunaldi bakoitzaren iraupena 5 edo 4 ordukoa izango da Antolatzaileek txapelketarako eremua aukeratuko eta mugatuko dute; horretarako erraz ikus daitezkeen mugak jarriko dituzte, eta mugak latitudearen eta longitudearen bidez geografikoki kokatuko dituzte. 23 urte azpiko txapelketak 3 ordukoak izango dira.

7.2 Eguraldi txarrarengatik edo halabeharrezko arrazoiengatik jardunaldietako bat guztiz edo partzialki bertan behera utzi behar bada, txapelketa baliozkotzat hartuko da, baldin eta jardunaldiaren elkarren segidako gutxienez 2/3ean arrantzatu bada.

Jardunaldietako batean elkarren segidako 2/3ean edo denbora gehiagoan arrantzatu bada, eta bestean denbora gutxiagoan edo gehiagoan, bi jardunaldietako emaitzen batuketa izango da baliozko emaitza. Komisario Orokorrek proba bertan behera uztea erabakitzen badu, proba hasi aurretik egingo du, Txapelketa Batzordeak eta Probako Zuzendariak entzunda. Proban zehar proba partzialki bertan behera uztea Probako Zuzendariaren erabakia izango da, itsas aginte eskudunak hala agintzen duenean salbu; kasu horretan itsas aginteak hartuko du erabakia.

- 7.3 Parte-hartzaileek beren ontziak erabili behar dituzte, 23 azpikoen txapelketan salbu. Bertan antolatzaileek emango dizkiete ontziak. Ez da sekula baimenduko parte-hartzaileek lurretik ateratzen diren txapelketa ofizialik. Ontzi bakoitzean kirolari bat baino gehiago egon daiteke eta ez da nahitaezkoa ontziz gizonik eramatea. Kasu horretan, ontzia ainguratuta egon beharko da, ontzian titulua duen kirolaririk ez badago.
- 7.4 Parte-hartzaileek eremuak azter ditzakete nahi duten egunetan. **Jardunaldiaren aurretiko 3 egunetan ezingo da arrantzatu ez eta urpeko arrantzarako fusilik eraman probarako mugatutako eremuan. Proba eguna baino egun bat lehenago ezingo da txapelketa-eremua bisitatu.**
- 7.5 Antolatzaileek edo Txapelketa Batzordeak txapelketarako eremua mugatu dezakete, segurtasun- edo higiene-arrazoiengatik (irteerak portutik, emisarioak...).

8. artikulua. - PROBAREN GARAPENA.

- 8.1 Hasiera: oinarrizko portutik irteera neutralizatua egingo da eta txapelketa-eremuaren erdigunera joango dira parte-hartzaileak. Probako Zuzendariak amaiera-ordu zehatza ematean, seinale akustikoen bidez ateratzeko abisatuko du. Probaren amaiera alderantziz egingo da: parte-hartzaile guztiak elkartze-eremura itzuliko dira Probako Zuzendariaren aurrean aurkezteko eta portura itzuli direla esateko. Parte-hartzailearen bat faltako balitz, Probako Zuzendariak alde aurretik adostutako puntuak itxaron beharko du, parte-hartzaileari dagozkion penalizazioak ezartzeko. Egokitzen jotzen bada, probako edozein komisariori bere orde itzarotea eska diezaioke.
- 8.2 Ontzi bat berandu iristen bada elkartze-eremura, Probako Zuzendariaren aurrean aurkeztu beharko da. Zuzendaria irteera-puntuak egongo da 10 minutuz.
- 8.3 Irteera neutralizatueta ontziek ezingo dute Probako Zuzendariaren ontzia aurreratu.
- 8.4 Parte-hartzaileek ezingo dute inoiz ontziz aldatu. Matxuraren bat badago, ontzi-komisarioak Probako Zuzendariari jakinaraziko dio eta hark, ahal bezain laster eta ontzi gehiago badaude, ontzia ordezkatzeko dio. Hori gertatu bitartean, kirolariak arrantzan jarrai dezake, baina ezingo du bere buiatik 25 metro urrutiratu. Matxuratutako ontziaren ordezkari ontziaren inguruan ezingo da erreklamaziorik egin.
- 8.5 Parte-hartzaileak beren artean oztopo ez egiten saiatuko dira. Ez dago kirolarien artean gorde beharreko gutxieneko tarterik, urpeko ikusgarritasuna lau metro baino gutxiagokoa denean salbu. Kasu horretan itsas azalean hamar metroko tartea mantendu beharko dute. Ontzi-komisarioek arau hori betetzen dela zainduko dute.
- 8.6 Ontziekin mugitzean, komisarioek gainerako parte-hartzaileak ez oztopatzen saiatuko dira. Distantzia nahikoarekin mugituko dira eta arrantzaletatik edo buietatik 25 metroko gutxieneko distantzia errespetatuko dute. Beren kirolaria gertu duten ontzietan abisatuko die, hala oztopoak edo istripuak ekiditeko. Horren ondorioz, parte-hartzaileek ezingo dute beren buietatik 25 metro baino gehiago urrutiratu.

- 8.7 Ontzietako patroiek haien kirolariek arau hori betetzen dutela zaintzeaz gain, ontzian daramatzaten baimendutako tresnak eman ahalko dizkiete. Arrantzaleak hala eskatzen badio, ontziko patroiak arraiak arpoitik askatu eta zenbakidun poltsan gorde ditzake.
- 8.8 Ezin da arrainak eramatekoa gerrian edo gorputzeko beste edozein ataletan eraman. Ezin da arrainik eraman jantziaren, galtza motzen, kamisetaren edo beste arropen barruan; arraina harrapatzean buiara edo ontzira eraman behar da.
- 8.9 Komisarioak, txalupazainak edo ontziko edozein tripulatzailek ezingo du fusila kargatu; soilik kirolariaren eginkizuna da hori.
- 8.10 Ontzi bakoitzeko arduradunak motordun kirol-ontziak gidatzeko beharrezko titulazioa eta federazioaren lizentzia eduki beharko ditu. Ontziak aseguru eguneratua izan beharko du.
- 8.11 Nekearengatik, ondoezagatik edo beste edozein arrazoiarengatik arrantzale batek proba utzi nahiko balu, ontzira igo beharko da eta Probako Komisario Orokorrari proba uzteko baimena eskatu beharko dio. Hark arrainen zakua zigitatuko du, eta kirolariak ordura arte lortutako arrainen kopuru hori pisatu ahalko du.
- 8.12 Banakako txapelketetan arrantzaleek ezin dituzte aleak elkarbanatu edo bata besteari eman. Era beran, arrantzaleek ezingo diote bata besteari lagundu, zentzuzko arrisku-kasuetan salbu.
- 8.13 Proba amaitu denaren seinalea eman ondoren, parte-hartzaileek arrantza egiteari utziko diote eta ontzira igoko dira berehala. Seinalea ematean edo amaiera-ordu zehatzean arrantzale batek ale bat arpoiaz jo badu, baina harrien tartean sartu bada edo itsas azalera ez badu, kide batek edo batzuek lagun diezaiokete, baldin eta Komisario Okorrrak onartzen badu. Hala, ahalik eta azkarren ontziratuta ahalko du alea. Hala ere, ale hori ez da baliozkotzat hartuko eta pisatzean punturik eman ezin duen ale gisa aurkeztu beharko da.
- 8.14 Parte-hartzaileek ezingo dute itsasoan geratu eta arrantzan jarraitu, kanporatuak izatearen truke ere ez. Proba amaitzen den ordu zehatzean, parte-hartzaileak nahitaez ontziratuta eta itzuli beharko dira.
- 8.15 Arrantzale bat antolatzaileek adostutakoa ez den beste portu batetik ateratzen bada, Komisario Okorrraren edo Probako Zuzendariaren aurrean aurkeztu beharko da ontziarekin batera, irteerako elkartze-puntuak, erdigunean edo oinarrizko portuan.
- 8.16 Proban zehar segurtasuna bermatzearen, parte-hartzaile orok itsas UHFa eraman beharko du antolatzaileekin erabateko kontaktua izateko. Probako Zuzendariak aukeratuko du katea.
- 8.17 **Zigorrak atzerapenengatik:** antolatzaileek penalizazioak ezarriko dituzte kontrol-puntura berandu iristeagatik (probaren hasieran eta amaieran). Salbuetsita geratzen dira matxuragatik, hondoratzeagatik edo probako beste parte-hartzaileak erreskatatzeagatik justifikatutako atzerapena izan duten parte-hartzaileak.

5 minutu arteko atzerapena _____	2.000 puntu
Hurrengo minutu edo frakzio bakoitza _____	500 puntu
20 minutu baino gehiago _____	Kanporaketa

- 8.18 **Seinale-kodea:** Proban zehar eta ontzi ofizialetatik, honako seinaleak erabiliko dira:

Bengalak _____ Sorospen eskaera, berehalako laguntza
Seinale akustikoak _____ Probaren **hasiera** edo **amaiera**

9. Artikulua. - **BALIOZKOAK DIREN ALEAK ETA PUNTUAZIOA**

- 9.1 Gutxienerako pisua 500 gramokoa da.
- 9.2 Itsas aingirek 4000 gramotik aurrera puntuatuko dute; 1000 puntuko balioa izango dute, gehi ale bakoitzeko hobaria (pisua edozein delarik ere), baina ale handiak ez du hobaririk izango. **Parte-hartzaile bakoitzeko soilik bi ale izango dira baliozkoak.**
- 9.3 Arrantzaleen segurtasuna bermatzearren, debekatuta dago itsas aingirak harrapatzea 23 urte azpiko txapelketan.
- 9.4 Parte-hartzaileak bizirik eta egoera askean harrapatu behar ditu aleak.
- 9.5 "Arrain" motakoak izan behar dira. Kanpoan geratzen dira ataltoa, arrain lauak (itsas zapoa, erreboiloa, mihi-arraina...), marrazoak eta arraiak. Meroak eta itsas sugeak ere kanpoan geratzen dira. Itsas armiarmak ere kanpoan geratzen dira, maneiatzeko arriskutsuak baitira. Txapelketan ezin da debekatutako espezierik edo baliozkoa ez den espezierik harrapatu.
- 9.6 **Penalizazioak:** espeziearen arabera, gutxienerako pisuaren % 80ra iristen ez diren aleak (23 urte azpikoetan % 70era iristen ez direnak) honela zigortuko dira:

Orokorrean 400 gr baino gutxiagoko aleak _____ 1.000 puntu
3.200 gr baino gutxiagoko itsas aingirak _____ 1.000 puntu
23 urte azpikoetan, orokorrean 350 gr baino gutxiagoko aleak _____ 350 puntu

Aurkeztu daitezkeen espezie bakoitzeko harrapakin gehieneko kopurua espezie horren kupoaren berdina izango da, **harrapakinak baliozkoak izan ala ez.** Ezarritako kupo baino harrapakin gehiago aurkezten badira, gaintzen duten aleen kopuruaren bikoitza erretiratuko da, eta betiere pisu gehieneko aleak kenduko dira.

- 9.7 Sailkapena honakoen arabera izango da: baliozko aleen pisuari dagokion puntuen batura, hobariekin eta penalizazioekin batera (baldin badaude). Sari bana egongo da ale gehiena eta ale handiena lortu dutenentzat.
- 9.8 Espezieentzako kupoak ezarriko dira. Gehienez 20, gutxienez 2 (**I. ERANSKINA**)
- 9.9 Espezie bakoitzeko 1.000 puntuko hobaria emango da.
- 9.10 Betetako kupoei honako formula erabiliz emango zaie hobaria:
KUPOEN KOPURUA x ALDAGAIA x KUPOEN KOPURUA GEHI 1
- 9.11 Baliozko aleek gramo bakoitzeko puntu bateko balioa dute, gehi alearengatik lortutako hobaria (gutxienerako pisu orokorraren berdina izango da).

- 9.12 10 kg-ko edo gehiagoko aleek soilik 10.000 puntuko balioa dute, gehi alearengatik lortutako hobaria. Hala ere, pieza handienaren sarirako guztizko pisua hartuko da kontuan.
- 9.13 Antolatzaileek zenbakidun zaku transpiragarriak banatuko dituzte, parte-hartzaile bakoitzak lortutako harrapakinak gordetzeko eta beranduago zigilatzen. Behin arrainak ontzitik aterata, ezingo dira hidratatu, estali edo txapelketaren poltsa ofiziala ez den plastikozko beste poltsa batean sartu. Soilik ale osoak onartuko dira (baliozkoak izateko, erraiak arrainari lotuak egon behar dira).
- 9.14 Txapelketa egunean bero handia egiten badu, antolatzaileek harrapakinak arrantzaleen hozkailuetan entregatzea **baimen dezakete**, antolatzaileek hozkailu ofizialik eduki ezean.
- 9.15 **Espezieak beren latinezko izenaren arabera desberdinduko dira.**

10. artikulua. – SAILKAPENAK.

- 10.1 Gipuzkoako txapelketarako sailkapena haren bi jardunaldiko puntuazioak gehituz lortuko da.
- 10.2 Proban ez bada ezer harrapatzen, izena ematean parte-hartzaileei ezarritako zenbaki ordinalaren arabera izango da sailkapen-postua.
- 10.3 Sailkapenetan berdinketa badago, ebatzia kupo gehien lortutako parte-hartzailearen aldekoa izango da lehenik; bigarren, espezie gehien lortutakoaren aldekoa; eta hirugarren, baliozko pieza gehien lortutakoaren aldekoa. Berdinketak jarraitzen badu, ale handiena duena sailkatuko da lehenengo.

11. artikulua.- ZIGORTZEKO ARRAZOIAK

- 11.1 Behin eta berriz arauzko tartea ez errespetatzea
- 11.2 Buia modu desegokian erabiltzea, hots, ez erabiltzea edo arrantzaletik 25 metro baino urrutiago egotea.
- 11.3 Txapelketako Epailletako, Antolakuntzako edo Kontrol Teknikoko kideei begirunerik ez izatea.
- 11.4 Txapelketa-eremu gisa seinalaturiko mugetatik kanpo egotea uretan.
- 11.5 Arrainak gainean eramatea (3.2. artikulua).

12. artikulua.- KANPORATZEKO ARRAZOIAK

- 12.1 Parte-hartzaileek elkarren artean laguntzea edo kolaboratzea, edo antolatzaileak ez diren pertsonengandik laguntza jasotzea, arrisku- edo istripukasuetan salbu. Materiala hausten edo galtzen bada, laguntza eskaini dezakeen bakarra ontzi-komisarioa da.
- 12.2 Askatasunean harrapatu ez diren edo hilda jaso diren aleak pisatzera aurkeztea
- 12.3 Aleak pisatzean iruzur egiten saiatzea.
- 12.4 Arraiak, oskoldunak, moluskuak, zefalopodoak, marrazoak edo txapelketan baliozkoak ez diren aleak harrapatzea.
- 12.5 Probako Zuzendariari aurretik esan gabe txapelketa uztea.
- 12.6 Uretatik kanpo edo buian fusila kargatzea edo kargatuta izatea.

12.7 Txapelketako Epailleek eskumena dute edozein parte-hartzaile probatik kanpo uzteko, kiroltasunik gabe jokatzegatik hala merezi badu, txapelketan zein txapelketaz kanpo.

12.8 Probaren egunean harrapatutako arraina itsasora botatzea edo harez libratzea (probaren egunean harrapatutako arrain guztiak pisatzera aurkeztu behar dira).

Jokabide horien zigorra probatik kanpo geratzea izango da, 11.1, 11.2, 11.4 eta 11.5 artikuluetan ezarritako balizko kasuetan salbu; kasu horietan, lehen abisua ohartarazpen-zigorra izango da; bigarren abisua % 20ko penalizazioa izango da proban lortutako puntuen gainean; eta hirugarren abisuan parte-hartzailea probatik kanpo geratuko da. Txapelketako Epailleek egokitzat hartzen duten kasuetan, salaketa jarriko da Gipuzkoako Urpeko Ihardueretako Federazioko Kirol Disziplinako Batzordearen aurrean.

13. artikulua.- ERREKLAMAZIOAK.

13.1 Honakoa izango da erreklamazioak egiteko arauzko bidea: parte-hartzaileak bere ontzi-komisarioari edo kapitainari egingo dio erreklamazioa, eta hark Komisario Orokorrari. Azken horrek Txapelketako Epallei aurkeztuko die erreklamazioa. Betiere idatziz egingo da eta 50 € eman beharko dira. Epaia aldekoa bada, dirua itzuli egingo da.

13.2 Erreklamazioen ebazpena:

13.2.1 Txapelketako Epailen ebazpenak gehiengoaren arabera eta sekretuan izango dira.

13.2.2 Berdinketa kasuan, Komisario orokorra izango da ebazlea.

13.2.3 Dena dela, beti pisatuko dira zigorra jaso dezakeen arrantzalearen harrapakinak.

13.3 Noiz komunikatzen dira ebazpenak?

13.3.1 Probako akta egin eta federazioan entregatu bezain laster. Hutsegitea araudia ez betetzeagatik izan bada, Komisario Orokorrak ebazpena probaren osteko astean argitaratuko du, probaren ondorengo zazpi egun natural igarotzean.

13.3.2 Probako aktan akatsen bat egon bada, sailkapena argitaratu eta ondorengo astean zehar komunikatuko da.

13.4 Noiz amaitzen dira erreklamazioak aurkezteko epeak?

13.4.1 Araudia haustearen inguruko erreklamazioak jardunaldiaren ebazpena komunikatzen den astean zehar amaituko dira, ebazpena argitaratuko ondorengo hiru lanegun ondoren.

13.4.2 Sailkapenetako akatsen inguruko erreklamazioak, akats horiek proban bertan argitaratzen badira, akatsa sortu eta berehala erreklamazioa jarri daiteke, antolakuntzak jarritako oholean argitaratu eta ordu erdi igaro arte.

13.4.3 Epe horiek igaro ondoren, Komisario Orokorrak txapelketako akta sinatuko du, emaitzak homologatuko ditu eta emaitza irmoak izango dira. Akta irmoa Federazioko Kirol Disziplinako Araudiaren kontrakoa den kasuetan errekurtsioa aurkeztu daiteke Federazioko Txapelketako Epailen eta Federazioko Kirol Disziplinako Batzordearen aurrean; horretarako erreklamazio-epea probako akta argitaratu eta astebetekoa izango da.

KLUBEN ARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETEN ARAUDIRAKO ERANSKINA

14. artikulua. BEREZITASUNAK.

- 14.1 Banakako txapelketa guztietarako araudi berdina erabiliko da, honako berezitasunekin:
- 14.2 Talde bakoitza klub bereko hiru arrantzalek osatuko dute; une berean soilik bi kirolari egon daitezke uretan.
 - 14.2.1 Taldea klub bereko bi kirolarik osatzea baimentzen da, eta horietako bat beti ontzian egon beharko da.
 - 14.2.2 Taldea bi arrantzalek eta hirugarren parte-hartzaile batek osatuta ere egon daiteke, hirugarren horrek klub bereko federazio-lizentzia eta ontzia gobernatzeko titulazio egokia baldin badu.
- 14.3 Klub bakoitzak gehienez hiru talde aurkez ditzake. Salbuespen gisa, Gipuzkoako Federazioak laugarren talde bat onar dezake, antolakuntza-baldintzen arabera.
- 14.4 Talde bakoitzak bere ontzia eraman beharko du.
- 14.5 Txapelketak jardunaldi bakarria izango du, gehienez 5 ordukoa.
 - 14.5.1 Eguraldi txarrarengatik edo halabeharrezko arrazoiengatik proba hasi eta bertan behera utzi behar bada, lortutako emaitzak baliozkoak izango dira soilik probak hiru ordu edo gehiago iraun badu.
- 14.6 Talde bateko kide bat edo biak uretan daudenean, buia erabili beharko da (bua bat talde bakoitzeko).

15. artikulua.- AMAIERAKO OHARRAK

- 15.1 Txapelketan eskua sartzan duen pertsona orok federazio-lizentzia izan behar du.
- 15.2 Txapelketako Epaileek araudi honetan agertzen ez den edozein gairen inguruan ebazteko eta erabakitzeko eskumena dute.
- 15.3 Parte-hartzaileen probako izen-ematea legezkoa egin orduko, araudi hau une oro betetzera behartuta daude, baita Itsaspeko Arrantzako Batzordeak behar-bezala baimendutako eta antolatzaileek eman ditzaketan argibide osagarriak betetzera ere.
- 15.4 Gipuzkoako Federazioa, erakunde antolatzailea eta txapelketako zerbitzu ofizial guztiak txapelketa honetan eskua sartzan duen edozeini gerta dakiokkeen istripu batek ondorioztatutako arduraz salbuetsirik daude.

1. ERANSKINA

Baliozko aleak eta kupoak

AZTIren (Euskal Herriko Ozeanografia Institutua) gomendioa jarraituz, debekatuta dago meroak eta itsas sugeak harrapatzea.

1. TALDEA. Ale bakoitzaren gutxieneko pisua 500 gr-koa da. Kupoak espezieko 5 (bost) harrapakinekoa da. Talde honetan honako espezieak sartzen dira:

- Abadirak (*pollachius pollachius*, *pollachius virens*)
- Baleztarrainak (*balistes carolinensis*)
- Atuntxikiak (*sarda sarda*)
- Krabarroka beltzak (*scorpaena porcus*)
- Txopak (*spondylionoma cantharus*)
- Krabarroka (*scorpaena scrofa*)
- Korrokoiak (*cephalus*, *labrosus*, ...)
- Muxarrak (*diplodus vulgaris*)
- Buztanbeltzak (*oblada melanura*)
- Muxumartinak (*zeus faber*)
- Haitzetako barbarinak (*mullus surmuletus*)
- Salpak (*sarpa salpa*)
- Muxar ezpainlodiak (*diplodus cervinus*)
- Muxar handiak (*diplodus sargus*)
- Akermuxarrak (*diplodus puntazzo*)
- Berrugeta kakajaleak (*umbrina canariensis*)
- Durdo handiak (*labrus bergylta*)

2. TALDEA. Ale bakoitzaren gutxieneko pisua 4.000 gr-koa da. Kupoak espezieko 2 (bi) harrapakinekoa da. Ale bakoitzak 1.500 puntuko puntuazio finkoa izango du (1.000 puntu piezako + 500 puntuko hobaria). Talde honetan honako espezieak sartzen dira:

- Itsas aingirak (*conger conger*)

3. TALDEA. Ale bakoitzaren gutxieneko pisua 500 gr-koa da. Lupiak 600 gr-koa da. Kupoak espezieko 2 (bi) harrapakinekoa da. Talde honetan honako espezieak sartzen dira:

- Txelba hortzandiak (*dentex dentex*)
- Urraburuak (*sparus aurata*)

- Lupiak (*dicentrarchus labrax*)
- Arrano-berrugeta (*argyrosomus regius*)
- Seriolak (*seriola dumerili*)
- Lamoteak (*pagellus erythrinus*)
- Brotolak (*physis physis*)
- Neskazaharrak (*chelidonichthys lucerna*, *trigla lyra*, *trigloporus lastoviza*)
- Itsas potxu ahohandiak (*lichia amia*)
- Berrugeta harrizaleak (*umbrina cirrosa*)

Aurreko taldeetan sartzen ez diren espezieak 3. TALDEAN sartuko dira.

Aurkeztu daitezkeen espezie bakoitzeko harrapakin gehienezko kopurua espezie horren kupoaren berdina izango da, **harrapakinak baliozkoak izan ala ez**. Ezarritako kupo bakoitza harrapakin gehiago aurkezten badira, gainditzen duten aleen kopuruaren bikoitza erretiratuko da, eta betiere pisu gehieneko aleak kenduko dira. Kupoengatik hobariak jasotzeko, soilik baliozko aleak hartuko dira kontuan.

Hobariak:

- Espezieko 1.000 puntuko hobaria.
- Aldagaia "**kupo kopurua * aldagaia * (kupo kopurua +1)**" formulara aplikatu daiteke baliozko ale bakoitzeko kupoengatik hobaria jasotzeko: 500 puntu.

Osatutako 1, 2, 3, 4 eta 5 kupoentzako hobaria kalkulatzeko adibideak:

- Kupo batengatik hobaria: $1 * 500 * (1+1) = 1000$ puntu
- 2 kupoengatik hobaria: $2 * 500 * (2+1) = 3000$ puntu
- 3 kupoengatik hobaria: $3 * 500 * (3+1) = 6000$ puntu
- 4 kupoengatik hobaria: $4 * 500 * (4+1) = 10.000$ puntu
- 5 kupoengatik hobaria: $5 * 500 * (5+1) = 15.000$ puntu

Ale bakoitzeko gehienezko puntuazioa:

- Ale baten pisuarengatik gehienez 10.000 puntu lor daiteke.